URUMEAKO kronika

2016ko apirilaren 23a, larunbata
Urumeako Kronika 122 zk.
::: www.kronika.eus :::

Argitaratzailea Laguntzaileak

**Argitaratzailea:** Dobera Euskara Elkartea. **Lan-taldea:** A. Arbelaitz, E. Zeberio, B. Los Arcos, K. Garmendia, J. Iurramendi, L. Rekondo, L. Goñi, M. Ramirez de Alda eta A. Moreno. **Egoitza:** Larramendi 11(Hernani)
☎ 943 33 08 99 (Hernani) eta 688 660 714 (Astigarraga). **Eposta:** *kronika@kronika.eus, astigarraga@kronika.eus, urumea@kronika.eus* eta *publi@kronika.eus*. *Lege gordailua:* SS-400/2014 *ISSN:* 2341-2976

**I TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 943 55 52 77 (Astigarraga) **I UDALTZAINGOA:** 092 **I DYA:** 943 464622 **I AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658, **Areizaga:** 943 452708, **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **I ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) **I JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103

**/ *Egunez:* Etxebeste** Elkano 9 **943 552087** **/ *Gauez:* Urrutia** Etxeberri 1 **943 557738** (Hernani)

**EGURALDIA**

**GAUR** Iparraldeko haizeak tenperatura jaitsiko du. Zeruan tarteka ostarteak irekiko dira, eta goizean ateri eutsiko dio, baina arratsaldean tarteka zaparrada txikiak bota ditzake. **Min.7º / Max.15º**

**BIHAR** Goizean giro motela eta hezea izango da, eta euria egingo du. Iparraldeko haizea bizi ibiliko da eta dezente freskatuko du. Arratsaldean atertzera egingo du. **Min.6º / Max.12º**

(euskalmet)




▌DOKUMENTALA

# Sagardoaren kultura, euskal mugak gaindituz

*Argentinatik pasa ondoren, Hernanin emango dute asteartean 'Sagardoa Bidegile' dokumentala; arratsaldeko 19:30etan, Biterin.*

ARGENTINA konkistatzera joan da Bego Zubia eta bere lantaldea, *Sagardoa Bidegile* dokumentala besazpian hartuta. Zehazki, Buenos Aireseko BAFICI nazioarteko zine-jaialdian parte hartu du dokumentalak, eta gaur eskainiko dute azkeneko aldiz Village Recoletako zine-aretoan.

### Hernanira buelta, datorren astean

Argentinako zine-aretoak liluratu ondoren, Euskal Herrira egingo du buelta, Hernani eta Astigarragako hainbat sagardotegietan grabatutako dokumentalak. eta lurreratze hori arinagoa izan dadin, Hernanin bertan egingo dute aurreneko geldialditxoa *Sagardoa Bidegile* dokumentaleko protagonistek.

Dokumentala ikusi nahi duenak, beraz, datorren asteartean aukera bikaina izango du Biteri kultur etxean. Arratsaldeko 19:30etan izango da saioa, eta hori bukatuta, sagardoa eta pintxoa eskainiko du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak.

> Argentinako BAFICI zinemaldian eman dute dokumentala gaur arte.

### Sagardoaren kulturan zehar

Bego Zubia zuzendari arrasatearraren eskutik, sagardoaren kulturan zehar bidaiatzea du helburu dokumentalak: «Urtean lau hilabetez, urtarriletik apirilera, euskal sagardotegiek milaka pertsona erakartzen dituzte, bertakoak zein kanpokoak. Tradizioa bete nahi dute denek: tortilla, bakailaoa, txuleta eta gazta jatea, eta txotxera deitzen duen ahotsa entzundakoan sagardoa edatea. Tradizio modernoa da hau, baina erro sakonak ditu».

### Hernani eta Astigarragako herritarrak eta sagardogileak, protagonistak

Dokumentala egiteko, Hernani eta Astigarragako herritar eta sagardogileen laguntza izan dute, bertan azaltzen dira, besteak beste: Iparragirre sagardotegiko Arantxa Eguzkitza, Zelaiako Oihana Ganzerain, Zapiaineko Miguel Zapiain, Petritegiko Ainara Otaño, eta Bereziartuako Aitor eta Jose Miguel Bereziartua. Baita Jon Torre Astigarragako historiagilea, Hernaniko Kantuz Abesbatza, Aritz eta Simon Goikoetxea, eta Aitor Beltran eta Ander Barrenetxea txalapartariak ere. ▌▌


Petritegi sagardotegiko Ainara Otaño da protagonistetako bat.

## IRAGARKI MERKEAK

**Bungalowa alokagai Benidormen.** Egun edo asteka. Urbanizazio pribatua, Rincón de Loix, Levante Hondartzan. Aire girotua, 2 logela eta 3 igerileku. **Deitu: 605 728 743**

**Garaje marra salgai,** Montevideo Kalea, 5 zenbakian. Kotxe haundia. Aparkatzeko erreza. 12.000€. **Deitu (Gonzalo): 652 760 961**

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
DIRUZ LAGUNDUA